

EUSKALTEL SA
LEHIAKETAREN OINARRIAK
“LaLiga_2022ko urria”

1.- ANTOLATZAILEA ETA SUSTAPENAREN HELBURUA

EUSKALTEL SAK (aurrerantzean **Euskaltel**. Helbidea: Parke Teknologikoa, 809 eraikina, Derio, Bizkaia. identifikazio fiskaleko zenbakia: A48766695) sustapen bat egingo du. **Euskaltelen** bezeroek parte hartu ahal izango dute sustapen horretan. Galdera honi erantzun behar diote: “Zure ustez, zein da denboraldi-hasiera honetako taldeko jokalaririk garrantzitsuena eta zergatik?” Ondoren, kontratuaren titularraren datuak bidali beharko dituzte,¹ mezu pribatu bat idatzita.

2.- LURRALDEA ETA LANGILEAK: Sustapenak Espainia osorako balio du. **Euskaltelen** 18 urtetik gorako bezero guztiek hartu ahal izango dute, baldin eta sustapenak irauten duen bitartean eta saria eman arte zerbitzuak aktibo baldin badituzte eta **Euskaltelekiko** ordainketak egunean badituzte.

3.- IRAUPENA: Sustapena 2022ko urriaren 21ean (ostirala) hasiko da, 10:00etan, eta 2022ko azaroaren 2an (osteguna) bukatuko da, 12:00etan.

Sustapena 2 zatitan egingo da, horietako bakoitza Ligako jardunaldi bati lotuta:

- Lehiaketaren lehen multzoa: urriaren 21etik urriaren 26ko 10:00ak arte egongo da zabalik.
 - Real - Betis
 - Athletic - Vila Real
 - Athletic - Atlético Madril (emakumeak)
 - Eibar - Lugo

- Lehiaketaren bigarren multzoa: urriaren 21etik azaroaren 2ko 10:00ak arte egongo da zabalik.
 - Real - Madril (emakumeak)
 - Real - Valentzia
 - Athletic - Valladolid
 - Eibar - Bartzelona B (emakumeak)

Partida bakoitzerako adierazitako epea baino lehen edo epea bukatu ondoren jasotako iruzkinak ezingo dute parte hartu. Ezinbesteko arrazoiengatik, arrazoi berezi arrazoitu eta arrazoizkoengatik edo legezko aginduengatik, **Euskaltelek** noiznahi erabaki ahal izango du sustapena bertan behera uztea eta/edo alde zuzenetik amaitzea.

4.- PARTE HARTZEKO MODUA ETA SUSTAPENAREN MEKANIKA: Espainian bizi diren 18 urtetik gorako **Euskaltelen** bezero guztiek parte hartu ahal izango dute, baldintza hauek betetzen badituzte:

¹ Izen-abizenak, helbide elektronikoa, harremanetarako telefonoa eta NANa

1.- **Euskaltelen** blogean dagoen “LaLiga_2022ko urria” lehiaketaren **formularioa betetzea**, eskatzen diren datu pertsonalak ematea eta zein partidatara joan nahi duten zehaztea. Lehiaketako parte-hartzaileek lehiaketa-multzo bakoitzeko zein partidatan parte hartu nahi duten aukeratu beharko dute.

Galdera honi erantzun beharko diote: “Zure ustez, zein da denboraldi-hasiera honetako taldeko jokalaririk garrantzitsuena eta zergatik?”(formularioan bertan dago galdera).

Ezin izango dute sustapen honetan parte hartu **Euskalteleko** langileek, haren filialetakoek, haren partaidetzako enpresetakoek, ez eta sustapen berezi baten onuradun diren edo sustapen honetan laguntzen duten laguntzaileek ere. Halaber, ezingo dute parte hartu aurretik aipatutako horien guztien lehen graduko senitartekoek.

5.-SUSTAPENAREN SARIA: Hauek dira sariak:

- Real - Betis partidarako bi sarrerako bi sari (urriak 30).
- Athletic - Vila Real partidarako bi sarrerako sari bat (urriak 30).
- Athletic - Atlético Madril emakume-taldeen arteko partidarako lau sarrerako bi sari (urriak 30).
- Eibar - Lugo partidarako bi sarrerako sari bat (azaroak 2).
- Real - Madril emakume-taldeen arteko partidarako bi sarrerako bi sari (azaroak 6).
- Real - Valentzia partidarako bi sarrerako bi sari (azaroak 6).
- Eibar - Bartzelona emakume-taldeen arteko partidarako lau sarrerako bi sari (azaroak 6).
- Athletic - Valladolid partidarako bi sarrerako sari bat (azaroak 9).

6.-SUSTAPENAREN IRABAZLEAK: Ligako hiru jardunaldietako bakoitzean, **Euskalteleko** marketin-saileko 3 pertsonak osatutako epaimahai bat bilduko da. Epaimahai horrek, aurreko baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileen artean, “Zure ustez, zein da denboraldi-hasiera honetako taldeko jokalaririk garrantzitsuena eta zergatik?” galderari erantzunik onena ematen diotenak aukeratuko ditu sari bakoitzerako. Egun berean bi ordezkari ere aukeratuko dira partida bakoitzerako.

- Lehiaketaren lehen multzoan parte hartzeko azken eguna: Urriak 26, 10:00. Irabazleen izenak noiz argitaratuko diren: Urriak 27, 12:00.
 - Real - Betis
 - Athletic - Vila Real
 - Athletic - Atlético Madril (emakumeak)
 - Eibar - Lugo
- Lehiaketaren bigarren multzoan parte hartzeko azken eguna: Azaroak 2, 10:00. Irabazleen izenak noiz argitaratuko diren: Azaroak 3, 12:00.
 - Real - Madril (emakumeak)

- Real - Valentzia
- Athletic - Valladolid
- Eibar - Bartzelona B (emakumeak)

7.- SARI-BANAKETA: Lege-oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuta eta epaimahaia bildu ondoren, irabazleen izenak **Euskaltelen** blogean argitaratuko dira.

Saria bidali aurretik, sustapenaren irabazleekin harremanetan jarriko gara, telefonoz edo posta elektronikoz, saria onar dezaten eskatzeko. Kontratuaren titularraren datuak eman beharko dizkio hark **Euskalteli**, nor den egiaztatzeko. 12 orduko epea ezarri da erantzuteko; bestela, saria ordezkotako bati emango zaio. Sarrerak izendunak dira. Bi parte-hartzaileen izen-abizenak eta NANA adierazi behar dira saria eskuratzeko.

Euskaltelek ezarritako prozeduraren arabera emango da saria.

Irabazleen batek ezin badu saria jaso, lehenengo ordezkotarekin jarriko gara harremanetan. Saridunekin eta ordezkotekin harremanetan jartzea lortu ezean, edo, lortuta ere, sariari uko egiten badiote, saria eman gabe geratuko da.

Ezingo da sariaren ordezkotaren balio ekonomikoa dirutan eman, eta ezingo zaio laga sariduna ez den beste pertsona bati.

Euskaltelek eskubidea du saria eman gabe uzteko, baldin eta saritutako partaideek eta ordezkotek ez badituzte betetzen oinarri hauetan aipatutako baldintzak.

Saria jasotzeko eskubidea iraungi egingo da, baldin eta irabazlearekin/irabazleekin harremanetan jarri ondoren saria adierazitako **Euskaltelen** dendan jasotzen ez badu(te).

8.-SUSTAPENAREN DOAKOTASUNA:

SUSTAPENA doakoa da, eta ez da ezer ordaindu beharko saria jasotzeagatik. Sustapenaren mekanikaren atalean zehazten diren deiek, telefono-mezuek, mezu elektronikoez, faxek edo parte-hartzaileek egin beharreko beste edozein komunikaziok sortzen dituzten kostuak parte-hartzaileen kontura izango dira.

9.- BALDINTZAK ETA ERRESERBAK: Irabazleek datu pertsonalak jakinaraztea nahitaezkoa da, sustapenean legez onartutako parte-hartzaile gisa lortutako saria jaso ahal izateko. Baldintza horiek betetzen ez dituen pertsonaren batek irabazten badu, automatikoki baztertuko da haren parte-hartzea.

Euskaltelek baztertu egingo ditu gehiegizko edo iruzurrezko partaidetzak, eta ez du bere gain hartuko parte-hartzaileek emandako datuen egiazkotasun ezaren erantzukizunik. Sustapen honen bidez, bezero guztien parte-hartzea sustatu eta bultzatu nahi da, eta berdintasun-baldintzetan eta fede onaren printzipio orokorra zorrotz errespetatuz sarituko da leialtasuna. Hori dela eta, **Euskaltelek** automatikoki eta berehala baztertuko du fede onaren arauak hausten dituen edozein parte-hartzaile, jokabide iruzurtia edo desegokia duen oro, bai eta bitarteko maltzurak erabiltzen dituen edo oinarrietako edozein atal betetzen ez duen oro ere. Aipatutako irregulartasunak edo jokabideak sarrietako bat eman ondoren atzematen badira, **Euskaltelek** eskubidea izango du haien egilearen edo erantzulearen aurka dagozkion legezko ekintzak gauzatzeko, sariak itzultzearekin lotutakoak barne.

Sustapeneko sariaren ordezkot ezin izango dira beste batzuk jarri, irabazleek hala eskatuta ere, eta ezingo da sariaren ordezkotaren balioa eskudirutan eman. **Euskaltelek** beretzat gordetzen du sustapena bertan behera uzteko, eteteko edo aldatzeko eskubidea,

baldin eta, arrazoi teknikoengatik edo haren borondateaz kanpoko beste edozein arrazoiengatik, sustapena normal egin ezin badu, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

Oinarri hauek denak batera hartuko dira kontuan, eta, haietan aurreikusi ez den orotan, aplikatu beharreko lege-araudi xedatzaileak aginduko du. Hutsuneak edo zalantzak fede onaren, erabilera komertzial eta tekniko egokien eta Zuzenbidearen printzipio orokorren arabera integratuko dira.

10.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA:

Zuk emandako datu pertsonalak Taldeko enpresek tratatuko dituzte (Euskaltel eta R Cable y Telecable Telecomunicaciones SAU), tratamenduaren erantzunkide izanik, lehiaketako zure parte hartzea kudeatzeko. Gogoratu eskubidea duzula noiznahi zure datuak tratatzeari uko egiteko edo datuetara irispidea izateko, mezu elektronikoko bat bidaliz docu@euskaltel.com helbidera. Gure webgunearen pribatutasun-politikari buruzko atalean duzu informazio guztia.

Gainera, Euskaltelek jakinarazten dizu ezen, irabazle suertatuz gero, zure oinarritzko datuak (izena eta lehen abizena) argitaratuko dituela, “La Liga Octubre 2022” kanpainaren publizitatea egiteko, besteak beste, **Euskaltelen** blogean eta/edo **Euskaltelen** webgunean (www.euskaltel.eus).

11.- OINARRIAK ONARTZEA: Euskaltelen blogaren bidez, dokumentu honetan adierazitako kondizioetan, erantzunak bidaltzeak esan nahi du parte-hartzaileek osorik onartzen dituztela, bai sustapenaren oinarriak, bai kanpainarekin lotuta **Euskaltelek** hartzen dituen erabaki guztiak.

Oinarriak onartu ezean, bezeroa sustapenetik kanpo geratuko da. **Euskaltelek** eskubidea du sustapenaren oinarrietan aldaketak edo zuzenketak egiteko nahiz azalpenak emateko, baita hura bertan behera uzteko edo zabaltzeko ere, egoki irudituz gero.

13.- AUZIAK: Espainiako legediaren mende dago guztiz sustapen hau. Kontratu hau betetzetik, ez betetzetik edo interpretatzetik eratorritako edozein eztabaida edo erreklamazio ebazteko, Espainiako auzitegietara jo ahal izango da; hain zuzen ere, alderdiak, dagokien beste edozein foruri uko eginez, Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira. Espresuki baztertzen da Kontsumoko Arbitraje Sistemaren mende jartzea kontratu honen ondoriozko edozein arazo ebazteko.